

Aluminiozko Adarra

Tururu!

Aitor Ruiz de Eginoren
erakusketa

Non: Bastero Kulturgunea,
Andoain.

Noiz: otsailaren 28a arte.

AITOR RUIZ DE EGINOK (Hernani, 1971) marrazkietatik abiatu zuen bere arte jarduna. Bi dimentsiotako lan horiek zeramikaren bidez iritsi ziren hiru dimentsioetara. Eskulturan, burdina, brontzea eta harria ere landu ditu, baina euskal artisten artean ezohikoa den aluminioa du material kuttuna. Metal distiratsua da, herdoildu gabe luzaroan bizi dena, bizitza irudikatzen egokia. Eta aluminioaren eskutik bi dimentsiotara itzuli da. *Tururu!* erakusketa aluminiozko 40 marrazki bildu ditu.

Kolore biziak erabiltzen ditu koadro horietan, oinarrizko koloreak, horiak, gorriak, urdinak... bere horretan, nahastu gabe. Ez ditu koloreak gehiegi landu nahi garrantzia duena forma delako, metalezko lerro garbiz osatutako forma.

Erakusketa aretoko horma zuri, garbi eta zutetan daude jarrita



Mar137 (2013).

marrazki gehienak, ilaran eta zuzen, tamaina bereko multzoak horma banatan. Baina Ruiz de Eginoren aluminiozko marrazkiak ez dira lauak, zimurtuta daude, hormatik irteten dira, euskarriaren garbitasuna hautsiz, eta Basteroko edukiontzi asimetrikoarekin bat eginez.



Sortaldean (2013).

Erakusketa aretoko zementuzko forma kurbatsuak atzeoial egokia dira eskultura lanetarako ere. Erakusketa 18 eskulturak osatzen dute, guztiak aluminio galdatuzkoak. Ikusleak parean zer duen galdetzen dio bere buruari. Zer egitura da hau? Animalia bat? Gizakia? Biak batera? Zer dira hauek, gizakiaren besoak ala zenenaren adarrak? Kutsu surrealista dute, egileak bilatzen duen misterioa.

Tururu! osatzen duten lanak berriak dira, gehienak azken urtean egindakoak, baina ez dute hernaniarraren obraren jarraitutasuna hauten. Ruiz de Eginok *Antropozooformak* izenburuko erakusketa egin zuen 2011n, eta izen horrek ederki definitzen ditu parean ditugun formak. Edo antropozoofitoformak

ere esan geniezaieke, animalia-gizaki horien gorputz-adar luzatuek zuhaitzen sustraietatik eta adarretatik asko baitute. Eta, oro har, Aitor Ruiz de Eginoren lanak asko du Adarratik. Adarra mendia du inspirazio iturri, eta bere lanak Adarrako izaki bizidunak dira, artistaren burutik iragazita.

Hernanin lan egiten du artistak. Zikuñaga auzoan duen Zikuzulo tailerrean. Hernanik harreman estua izan du Antzinarotik metalgintzarekin eta Aitor Ruiz de Eginok ere txikitatik egon da metalari lotuta, aitzak galdategi batean egiten baitzuen lan. Artelanak osatzeko behar duen guztia bertan du eskura (www.aitorruiz-de-eguino.com gunean eskulturak egiteko prozesu osoa biltzen duen bideo ederra dago ikusgai), eskura du materiala biltzeko txartategia, eskura aluminioa galdatzeko lantegia eta metala margotzeko pintura. Dena, Adarraren magalean. ■

**Nagore
Irazustabarrena**

